

IRUNGO UDAL
MUSIKA FUNDAZIOA



FUNDACIÓN MUNICIPAL
DE MÚSICA DE IRUN

Ayuntamiento



Udala

irun
www.irun.org

LUIS MARIANO NAZIOARTEKO VIII KANTU LEHIAKETA

OINARRIAK 2005

Irungo Udalak, Irungo Udal Musika Fundazioaren laguntza teknikoarekin batera, "LUIS MARIANO" NAZIOARTEKO VIII. KANTU LEHIAKETA biurtekoa antolatu dute. Lehiaketa hau 2005eko Uztailean egingo da.

Lehiaketa honek halako baldintzak betetzen dituzten eta balio artistiko nabariak dituzten gazte abeslariak mundu lirikora jauzi egin dezatela du helburu.

INFORMAZIO OROKORRA

1.- IRUNgo Udalak, Irungo Udal Musika Fundazioaren laguntza teknikoarekin batera, "LUIS MARIANO" NAZIOARTEKO VIII. KANTU LEHIAKETA biurtekoa antolatu dute. Lehiaketa hau 2005eko Uztailaren 14 eta 16 bitartean egingo da, eta halako baldintzak betetzen dituzten eta balio artistiko nabariak dituzten gazte abeslariak mundu lirikora jauzi egin dezatela du helburu.

2.- "LUIS MARIANO" NAZIOARTEKO VIII. KANTU LEHIAKETA honetan parte ahal izango dute honako adin-tartean dauden kantari guztiek, duten nazionalitatea dutela:

* Emakumezkoak, 18-32 urte bitartekoak, 2005ean eginak

* Gizonezkoak, 20-35 urte bitartekoak, 2005ean eginak

3.- Lehiaketa honetan parte harturik, abeslariak onartu egiten dituzte Oinarriak, Epaimahaiaren erabakiak eta abeslariaren jarduerari buruzko xedapenak oro.

4.- Lehiaketa honetan izena ematen duten abeslariak ziurtatu egiten dute lehiaketa egiten den egunetan betebeharrak profesional guztietatik libre daudela.

5.- Epaimahaiak ez du zertan Lehiaketari begira aurreikusi diren sari guztiak eman beharrik, eta saririk ematea merezi ez duela erabaki dezake. Sariak metatu egin daitezke edo banatu.

6.- Lehiaketaren fase guztiak piano batez lagundurik egingo dira.. Antolakuntzak bi pianojole-laguntzaile jarriko ditu parte hartzen duten lehiakideen eskura.

7.- Onartutako lehiakideek aukeratutako programako partitura bakoitzeko 2 (2) kopia (kantua eta pianoa) bidaliko dizkiote Antolakuntzari.

IZENA EMATEA

8.- Izena emateko epea aldaezina da eta Oinarri hauek argitara ematen diren egunean hasi eta 2005eko Maiatzaren 31 arte luzatuko da. Lehiaketa honetan izena emateko, behar bezala betetako izenemate-orria igorriko zaio

Antolakuntza Batzordeari. Orriarekin batera, beste dokumentu guztiak eta bideoan edo audioan eginiko grabazio bat, grabazio berria, igorriko dira. Ez dira aintzat hartuko zehaztutako epea amaitu ondoren Antolakuntza Batzordera iritsi daitezkeen izenemate-orriak, dokumentuak eta jakinarazpenak.

9.- 100,00 euroko kuota bat zehazten da, izena emateko eskubidearen ordain gisa. Kopuru hori Irungo Udal Musika Fundazioak Gipuzkoa-Donostia Kutxan duen kontuan sartuko da (2101 0045 92 0003249554). Onartzen ez diren lehiakideei itzuli egingo zaie kopuru hori, izena emateko orrian zehazturiko kontu-zenbakian egingo den diru-sarreraren bitartez.

10.- Izena emateko orria, banku-transferentziaren ziurtagiria edo posta-igorpena ziurtaturiko postaz bidaliko dira edo 2005eko Maiatzaren 31 baino lehen utziko dira honako helbide honetan:

IRUNGO UDAL MUSIKA FUNDAZIOA

"LUIS MARIANO" NAZIOARTEKO VI. KANTU LEHIAKETA

M^a Luisa Etxea-Mendibil 41. Posta-kutxatila 20302 IRUN

Zigiluan azaltzen den data egiaztapen-gisa erabiliko da.

Behar bezala osatutako izenemate-orriarekin, obren programarekin eta lehiakidearen banku-datuekin batera, ondoko dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Jaiotze-agiria, edo nortasun-agiria edo pasaporteak.
- Norberaren Curriculum vitae labur bat (ikasketak, ikastegiak, irakasleak, jarduera profesionalak, errepertorioa eta abar), egungo helbidea, telefonoa eta faxa (gehenez orrialde bat).
- Azkenaldi honetako bi argazki, pasaportearen formatuan bata eta postal neurrikoa bestea.
- Ziurtagirien kopiak. Aurkezpen-orriak.
- Programako hamar (10) obren bi kopia.
- Bideoan edo audioan egin berri den grabazio bat.
- Banku-transferentziaren ziurtagiria.

Eskaera-dokumentuak, partituren kopiak eta grabazioak ez dira itzuliko.

11.- Antolakuntzak 2005eko ekainaren 15 baino lehen berretsiko du Lehiaketan onartuak izan diren partaideen zerrenda.

INTERPRETATU BEHARREKO OBREN PROGRAMA

12.- Lehiakide bakoitzak HAMAR (10) obrako programa bat aurkeztu beharko du, honela banatua:

A TALDEA Lau (4) obra, Oratorio-Kantata, Lied, eta Kontzertu-Kantu moldekoak. Nahasian aurkez daitezke molde hauetako obrak.

B TALDEA Sei (6) Opera-Aria, Opereta edo Zartzueta (hiru moldeetako obrak nahasian aurkez daitezke, baina Zartzuelak izatera gehienez bi Aria onartuko dira).

LEHIAKETAREN GARAPENA

Zozketa bakar bat egingo da proba guztietarako eta hartan zehaztuko da emanaldien eta entseien ordena. Zozketa 2001eko Uztailaren 12an egingo da, goizeko 11etan, Irungo Amaia Kultur Zentroko Hitzaldi Aretoan.

Zozketa-une horretan, bertan egon beharko dute, dokumentuz bada ere, lehiakide guztiek.

14.- Lehiaketa hiru fasetan garatuko da:

KANPORAKETAK:

2005eko Uztailaren 14an, 19,00etan, Irunen.

2005eko Uztailaren 15ean, 11:00etan, Irunen.

FINAL-ERDIAK:

2005eko Uztailaren 15ean, 19:00etan

FINALA:

2005eko Uztailaren 16an, 19:00etan

15.- ENTSEIUAK-SAIOAK: Hona hemen entseiuak eta saio akustikoak egiteko aurreikusi diren egunak eta orduak:

- Kanporaketa faseei begira

2005eko uztailaren 14an, 11,30etatik 18,30ak arte.

2005eko uztailaren 15an, 9,00etatik 10,30ak arte.

- Finalerdiko faseari begira

2005eko uztailaren 15an, 14,00etatik 18,30ak arte.

- Finalerako faseari begira

2005eko uztailaren 16an, 11:00etatik 18,30ak arte.

Antolakuntzak alde zuzenetik jakinarazi gabe aldatu ahal izango ditu ordutegi horiek, baina ordutegiak aldatuz gero, eman emango ditu aldaketa horien berri.

16.- Antolatzaileek pianojole laguntzaile bat ezarriko dute parte-hartzaile bakoitzaren zerbitzuan. Entseiu baterako eskubidea izango du kantari bakoitzak proba guztien aurretik. Lehiakideek, probetan beren pianojolea eraman ahal izango dute, hala nahi izanez gero. Hala izatera, norberaren kargu

joango dira pianojole laguntzaile horren bidaia eta ostatu-gastuak. Izena emateko orrian egin beharko dira xehetasun hauek.

LEHIAKETA PROGRAMA

18.- Honako obra hauek interpretatuko ditu lehiakide bakoitzak:

KANPORAKETA: Berak aukeraturiko bi (2) obra interpretatuko ditu lehiakideak. A Taldekoa izango da bata eta B Taldekoa bestea. Programa hau ez da 12 minutu baino luzeagoa izango.

Lehiakideek argi eta garbi adieraziko dute izena emateko orrian Kanporaketan interpretatu beharreko bi obrak.

FINALERDIA: Berak aurkeztu duen programako bi (2) obra interpretatuko ditu lehiakideak. A Taldekoa izango da bata eta B Taldekoa bestea.

FINALA: Berak aurkeztu duen programatik epaimahaiak hautatutako bi Opera-Aria interpretatuko ditu B taldekoak.

18.- Ez da programa elebakarrik onartzen. Lehiakide guztiek gutxienez hiru hizkuntza bizitan idatziriko kantuak aukeratu dituzte.

20.- Antolatzaileen esku dago behar adinako maila egiaztatu ez duten lehiakideak Lehiaketatik kanpo uztea eta antolatzaileen ustez nahikoa balio musikalik ez duten programak baztertzea.

21.- Era berean, Epaimahaia ados balego, kanporaketarako probak egiteko sistema alda lezakete antolatzaileek, neurri horri bidezko iritziz gero.

EPAIMAHAIA

22.- Irungo Udal Musika Fundazioak izendatuko duen Epaimahaian musikagintzan adituak direnak egongo dira. Jarduteko zozketa-unean jakinaraziko da Epaimahaiaren osaera. Epaimahaiaren erabakia aldezina izango da.

JARDUERARAKO OINARRIAK

23.- Lehiakideak berak erabakiko du kantu-jarduera bakoitzean interpretatuko duen programaren ordena.

24.- Obrak jatorrizko hizkuntzan eta buruz kantatuko dira, "Oratoriokoak" izan ezik, partituraz kantatu ahal izango baitira horiek. "Lieder" edota kontzertu-kantuetan baizik ez dira onartuko tonalitate-transposizioak.

25.- Epaimahaiak egoki irizten duenean eta hiru probetatik edozeinetan lehiakidearen jarduerari amaiera emateko edo jarduera eteteko eskubidea izango du. Soilik oso kasu berezietan baliatuko da prozedura hori. Gainera, lehiakideak jada abestu duen obra bat berriro ere interpretatzeko eska diezaioke epaimahaiak lehiakideari.

26.- Kantu-jarduera guztiak jendaurrean egingo dira. Entzuleek emanaldi bakoitzaren hasietan emango diren instrukzioei erreparatuko diete. Txaloak eta abeslariaren jardueraren aurreko aldeko nahiz kontrako adierazpenak oro soilik Lehiaketaren finalean onartuko dira.

HAUTATZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

27.- Lehiakideak kalifikatzeko orduan, Antolakuntza Batzordeak onartutako eta Epaimahaiaren Arautegian zehaztutako printzipioak eta irizpideak aplikatuko dira.

28.- Finalerako hautagaiak aukeratzean eta Lehiaketaren azken emaitzak erabakitzean kontuan edukiko da lehiakideak Lehiaketaren fase guztietan eskainitako irudia. Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira.

SARIAK

29.- Finalera iristen diren lehiakide guztiek diploma bat jasoko dute. Katgoria bakoitzean sari bakarra emango da:

1. SARIA	9.100,00 Euro
2. SARIA	4.550,00 Euro
3. SARIA	3.000,00 Euro

EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA GAZTE HOBERENARI 3.000,00 Euro
Gipuzkoa-Donostia Kutxak emana.

30.- Epaimahaiak beste era batean bana ditzake sariak, hala behar duela irizten badu. Gainera, Antolakuntza Batzordeak onartutako beste sari batzuk eman ahal izango ditu Epaimahaiak.

31.- 150 Euro eta Finalista Diploma jasoko ditu aipaturiko saririk lortu ez duen finalista orok.

32.- Azken proba edo finala egiten den gauean emango dira sariak. Sarituek berek jaso behar dituzte sariak.

LAGUNTZAK PARTEHARTZAILEEI

33.- Bidaia eta ostatu gastuak lehiakidearen kargu joango dira. Bi laguntza-mota zehaztu dira:

A) Bidaia-gastuetarako laguntzak:

150 km bitarteko lekutzea	0 Euro
151-500 km bitarteko lekutzea	30 Euro
501-1.000 km bitarteko lekutzea	42 Euro
1.000 km-tik gorako lekutzea	60 Euro

Laguntza hau izena eman duten lehenengo 30 lehiakideei baizik ez zaie emango. Lehiakideen bizilekua, ez besterik, hartuko da lekutze horien abiapuntutzat.

B) Dietak: 30,00 Euroko dieta kobratuko du lehiaketa-egun bakoitzeko, finalerdietara igarotzen den lehiakide bakoitzak.

OINARRI GEHIGARRIAK

34.- Lehiakide eta laguntzaile guztiek partehartzaileen txartel bat izango dute Lehiaketako ekitaldi guztietara sarrera librean izan dezaten.

35.- Probak irratiz nahiz telebistaz eskaini ahal izango dira, edo audio eta bideoan grabatu ahal izango dira. Lehiakideek onartu egingo dute Lehiaketa honetan parte hartzearen ondorioz telebistaz edo irratiz bidera litezkeen ikus-entzunezko erreprodukzio eta komunikazioen ordeko eskubideen zesioa. Bi kasuetan, Lehiaketa hasten denetik 2005eko Abenduaren 31ra arte luzatuko da eskubide horien zesio-epea.

36.- Lehiakideek Irungo Udal Musika Kontserbatorioko gelak erabili ahal izango dituzte ahotsa lantzeko.

37.- Lehiaketan izena eman ondoren, Lehiaketaren antolatzaileek Irunen eta Txingudin ostatu hartzeko informazioa emango diete interesatuei.

38.- Epaimahaiak erabaki bat hartuko du lehiaketaren uneren batean gerta litekeen istilu, gaizki ulertu edo antzekoren baten aurrean. Epaimahaia artean osatu gabe badago, Zuzendaritza Batzordeak hartuko du hartu beharreko erabakia.

39.- Oinarri hauek kontuan hartzen ez dituen lehiakidea Lehiaketatik at geratu ahal izango da.

Irungo Udalak harrera ofiziala egingo die lehiakide guztiei eta Epaimahaia osatzen dutenei Irungo Udaletxeko Bilkura Areto Nagusian, 2005eko Uztailaren 14an, ostegunean, 17,00etan.

IRUNGO UDAL MUSIKA FUNDAZIOAREN egoitzan egokituko da LUIS MARIANO NAZIOARTEKO VIII. KANTU LEHIAKETArako bulego iraunkorra, eta IRUNGO UDALETXEAN prentsa bulegoa.

Zernahi informaziotarako edota OINARRIAK bidal dakizkizuela eskatzeko, jo ezazue helbide honetara:

LUIS MARIANO NAZIOARTEKO VIII. KANTU LEIHA KETA

IRUNGO UDAL MUSIKA FUNDAZIOA

M^a Luisa Etxea - Mendibil 41. Posta-kutxatila 20302 IRUN

Tfnoa: 943 61 77 31 Faxa: 943 61 43 64

e-mail: conservatorio@irun.org

